Kontratuen erregistroa 2024ko martxoan

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko martxoan 40.320 pertsona kontratatu dira, joan den urteko martxoan baino 2.725 gutxiago (% 6,3ko beherakada). Otsailarekin alderatuta, aldiz, hazi egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 229 pertsona gehiago kontratatu dira,% 0,6ko gorakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 20.103 gizonezko eta 20.217 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan -% 7,5 (-1.619 gizonezko) eta emakumezkoen kasuan -% 5,2 (-1.106). Hil arteko konparaketan hazi egin da kontratazioa gizonen kasuan: % 1,9 (+371 gizon), emakumeen kasuan, aldiz, %0,7 murriztu da (-142 emakume).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 36,19 da, eta baxuagoa da gizonena (36,01) emakumezkoen aldean (36,37). Gipuzkoakoa dira kontratatutako pertsona gazteenak (35,66), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (36,47).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 33,44 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43,31koa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,75 eta 36,98 urte, hurrenez hurren). Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatutako pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino zaharragoak dira (36,26 vs 36,05).

• JATORRIA

2024ko martxoan kontratatutako pertsonen % 20,6k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urtekoa baino 0,4 puntu gehiago. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 56,1ek Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 12,6k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 9,9k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoa, % 7,3k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, %6,7k Asiakoa eta % 6,2k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa. Bertakoak atzerritarrak baino apur bat zaharragoak dira; 36,21 eta 36,11 urte, hurrenez hurren. Kontratazio-bolumen esanguratsua duten atzerritarren artean, Latinoamerikakoak dira gazteenak (35,53 urte) eta Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoak, zaharrenak (38,02 urte).

Azken hilabetean, kontratazio-maila esanguratsua duten jatorrien artean, Ipar Afrikatik etorritakoen artean murriztu da gehien kontratatutako pertsonen kopurua, 74 pertsona gutxiagorekin (-%6,6). Aitzitik, balio absolutuetan gehien hazi den pertsona-taldea Latinoamerikatik etorritakoena da; 263 pertsona gehiago kontratatu dira eta % 6ko ehuneko-hazkundea izan dute; balio erlatiboetan, igoerarik handiena Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoen artean gertatu da, % 8,9ko hazkundearekin eta 67 pertsona gehiagorekin.

Urte arteko bilakaeran, gora egin duen jatorri esanguratsu bakarra Latinoamerika da: % 0,5 igo da eta jatorri honetako 24 pertsona gehiago kontratatu dira. Beste muturrean, gehien mu-

rriztu den jatorria, bai balio absolutu zein erlatiboetan, Afrika iparraldetik etorritakoena izan da (-161 pertsona eta % 13,6ko jaitsiera).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 41,8k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 23,3k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 17,7k unibertsitatekoak eta % 16,3k LHko ikasketak.

Hileko erreferentzian, murriztu egin da unibertsitateko ikasketak (-234 pertsona, -% 3,2) eta LHko ikasketak (-117 pertsona, -% 1,7) dituzten pertsonen kontratazioa. Aitzitik, gora egin du derrigorrezko ikasketak (322 pertsona gehiago, % 1,9 gehiago) eta batxilergoko ikasketak (+256 pertsona, + % 2,8) dituzten pertsonen kontratazioak

Urteko erreferentzian behera egin du ikasketa profil guztietan kontratatutako pertsonen kopuruak, batxilergoan izan ezik, 31 gehiago izan baitira (% 0,3 gehiago). Beherakada handiena, bai kopuru absolutu zein erlatiboetan, unibertsitate ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da, 1.100 pertsona gutxiagorekin eta % 13,4ko jaitsierarekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

2024ko martxoan zehar kontratazio kopurua 55.504 izan da EAEn, horietatik 13.664 (% 24,6) mugagabeak izan dira. Otsailetik puntu 1 murriztu da portzentaia eta iazko martxotik 3 puntutan murriztu da. Hala ere, datu honek, 2022an aplikatu zen lan erreformaren ondoren hasi zen joera berresten du. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 26,1 eta % 23,2 hurrenez hurren).

Kontratazioa % 0,9 murriztu da aurreko hilabetearekiko (482 kontratu gutxiago). Aurreko urtearekin alderatuta ere, murriztu egin da kontratu kopurua; -% 8,6 eta 5.240 kontratu gutxiago.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioan jaitsiera nabarmenenak hezkuntzan (-1.041) eta administrazio jardueretan (-864) izan dira. Igoerarik handienak, aldiz, manufaktura industrian (+640) eta ostalaritzan (+531) izan dira.

Iazko datuekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Beherakadarik nabarmenenak profil hauen kontratazioan gertatu dira: garraioa (-1.309), merkataritza (-974) eta manufaktura industria (-951). Igoera handiena izan duten jarduerak, aldiz, informazio eta komunikazioa (+1.081) eta osasun jarduerak (+276) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaerari dagokionez, kontratazioak gora egin du okupazio guztietan, honako bi hauetan izan ezik; modu nabarmenean teknikari zientifikoen profilean (1.494 kontratu gutxiago, -% 13,7) eta laguntzako teknikarien profilean (-10 kontratu, -% 0,2). Kontratazioak, balio absolutuetan, kualifikaziorik gabekoetan egin du gora gehien, 315 kontratu gehiago egin baiti-

tuzte (% 2,4ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, igoera nabarmenena zuzendaritza-profileko kontratuetan gertatu da, % 32ko igoera eta 39 kontratu gehiago erregistratu baitira.

Iazko martxoaren aldean, jaitsi egin da kontratazioa okupazio guztietan, teknikari eta profesional zientifikoetan izan ezik, 862 kontratu gehiago izan baitira (+%10,1). Jaitsierarik handiena, guztizko balioetan, ez-kualifikatuek izan dute, 2.509 kontratu gutxiagorekin (-%15,8); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena industriako kualifikatuen kontratazioan gertatu da, % 15,9ko murrizketarekin (-600 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren eta oraingoan %24,6 izan baita. %20tik gorako tasak ohikoak izaten ari dira 2022 hasieran lan-erreforma onartu zenetik.

2024ko martxoen sinatutako kontratuen % 35,3 lanaldi partzialekoak dira, % 45,9 emakumeen kasuan eta % 24,5 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 32,1 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 67,2), beste zerbitzuak (% 55) eta hezkuntza (% 50,4). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan ehuneko handiena izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 57), eta gutxiena, manufaktura eta artisautza kualifikatuak (% 9,4).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 20,1 Araban dago, % 49,5 Bizkaian eta gainerako % 30,4 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Gipuzkoan 34 kontratu gehiago sinatu dira (% 0,2ko igoera), igoera izan duen lurralde bakarra da; Araban 152 kontratu gutxiago sinatu dira (% 1,3ko beherakada) eta, Bizkaian, azkenik, 364 kontratu gutxiago egin dira (-% 1,3).

Iazko datuekin alderatuta, Araban 115 kontratu gehiago sinatu dira (% 1eko igoera), lurralde hau da igoera izan duena bakarra; Bizkaian, % 5,6 murriztu da (1.629 kontratu gutxiago); Gipuzkoan, azkenik, 3.726 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, % 18,1eko beherakada.

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2024ko martxoan sinatutako kontratuen % 26,7 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 35,5 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 18 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 10 hazi dira; 2023ko martxoarekin alderatuta, berriz, % 3,8 murriztu dira.


Urtarriletik martxorako kontratu mugagabeak
50.000
45.000
40.000
35.000
30.000
25.000
20.000
15.000
10.000
5.000
0
15.252
16.190
18.535
19.851
20.023
19.118
19.155
34.583
45.584
42.985
2015
2016
2017
2018
2019
2020
2021
2022
2023
2024

Kontratuen erregistroa 2024ko martxoan

		Mar-2024	Ots-2024	Mar-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	13.664	14.321	16.787	-657	-4,59	-3.123	-18,6
	Aldi baterakoa	41.840	41.665	43.957	175	0,42	-2.117	-4,8
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
	Mugagabeen %	24,6%	25,6%	27,6%	-0,96		-3,02	
Sexua	Gizona	27.385	26.853	29.938	532	1,98	-2.553	-8,5
	Emakumea	28.119	29.133	30.806	-1.014	-3,48	-2.687	-8,7
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
	Emakumeen %	50,7%	52,0%	50,7%	-1,38		-0,05	
Mugaga-bea	Gizona	7.150	7.571	8.846	-421	-5,56	-1.696	-19,2
	Emakumea	6.514	6.750	7.941	-236	-3,50	-1.427	-18,0
	Guztira	13.664	14.321	16.787	-657	-4,59	-3.123	-18,6
Aldi bate-rakoa	Gizona	20.235	19.282	21.092	953	4,94	-857	-4,1
	Emakumea	21.605	22.383	22.865	-778	-3,48	-1.260	-5,5
	Guztira	41.840	41.665	43.957	175	0,42	-2.117	-4,8
Guztira	Gizona	27.385	26.853	29.938	532	1,98	-2.553	-8,5
	Emakumea	28.119	29.133	30.806	-1.014	-3,48	-2.687	-8,7
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
Mugaga-been tasa	Gizona	26,1%	28,2%	29,5%	-2,09		-3,44	
	Emakumea	23,2%	23,2%	25,8%	0,00		-2,61	
	Guztira	24,6%	25,6%	27,6%	-0,96		-3,02	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.392	4.798	5.364	-406	-8,46	-972	-18,1
	Aldi baterakoa	15.210	15.018	16.273	192	1,28	-1.063	-6,5
	Beste batzuk	35.902	36.170	39.107	-268	-0,74	-3.205	-8,2
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
	LP tasa	35,3%	35,4%	35,6%	-0,08		-0,30	
Lanaldi partziala	Gizona	6.703	6.397	7.200	306	4,78	-497	-6,9
	Emakumea	12.899	13.419	14.437	-520	-3,88	-1.538	-10,7
	Guztira	19.602	19.816	21.637	-214	-1,08	-2.035	-9,4
	Gizonen tasa	24,5%	23,8%	24,0%	0,65		0,43	
	Emakumeen tasa	45,9%	46,1%	46,9%	-0,19		-0,99	
	Tasa guztira	35,3%	35,4%	35,6%	-0,08		-0,30	
Prestakuntza-koak	Prestakuntzakoak	18	75	37	-57	-76,00	-19	-51,4
	Beste batzuk	55.486	55.911	60.707	-425	-0,76	-5.221	-8,6
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
	Prestakuntzakoak (%)	0,0%	0,1%	0,1%	-0,10		-0,03	
L. historikoa	Araba	11.153	11.305	11.038	-152	-1,34	115	1,0
	Bizkaia	27.473	27.837	29.102	-364	-1,31	-1.629	-5,6
	Gipuzkoa	16.878	16.844	20.604	34	0,20	-3.726	-18,1
	EAE	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
Gizonak	Lehen sektorea	383	392	422	-9	-2,30	-39	-9,2
	Erauzketa-industriak	4	16	19	-12	-75,00	-15	-78,9
	Manufaktura-industriak	5.772	5.478	6.514	294	5,37	-742	-11,4
	Energia	7	8	11	-1	-12,50	-4	-36,4
	Ura	231	207	261	24	11,59	-30	-11,5
	Eraikuntza	1.453	1.624	2.100	-171	-10,53	-647	-30,8
	Merkataritza	2.551	2.452	3.102	99	4,04	-551	-17,8
	Garraioa	3.097	3.097	4.133	0	0,00	-1.036	-25,1
	Ostalaritza	3.080	2.729	3.356	351	12,86	-276	-8,2
	Informazioa eta komunikazioa	2.297	2.036	1.511	261	12,82	786	52,0
	Finantzak eta aseguruak	118	109	175	9	8,26	-57	-32,6
	Higiezinen sektorea	31	27	29	4	14,81	2	6,9
	Zientifikoak eta teknikoak	682	751	866	-69	-9,19	-184	-21,2
	Administraziokoak	2.782	3.080	2.606	-298	-9,68	176	6,8
	Administrazio publikoa	434	285	390	149	52,28	44	11,3
	Hezkuntza	870	1.179	1.146	-309	-26,21	-276	-24,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.518	1.376	1.337	142	10,32	181	13,5

Kontratuen erregistroa 2024ko martxoan

		Mar-2024	Ots-2024	Mar-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.533	1.505	1.403	28	1,86	130	9,3
	Beste zerbitzu batzuk	465	419	451	46	10,98	14	3,1
	Etxeetako jarduerak	77	83	105	-6	-7,23	-28	-26,7
	Lurraldez kanpoko erakundeak	0	0	1	0		-1	-100,0
	Guztira	27.385	26.853	29.938	532	1,98	-2.553	-8,5
Emakumeak	Lehen sektorea	71	91	29	-20	-21,98	42	144,8
	Erauzketa-industriak	3	1	4	2	200,00	-1	-25,0
	Manufaktura-industriak	2.202	1.856	2.411	346	18,64	-209	-8,7
	Energia	13	17	9	-4	-23,53	4	44,4
	Ura	36	33	41	3	9,09	-5	-12,2
	Eraikuntza	118	139	182	-21	-15,11	-64	-35,2
	Merkataritza	3.385	3.479	3.808	-94	-2,70	-423	-11,1
	Garraioa	604	686	877	-82	-11,95	-273	-31,1
	Ostalaritza	5.267	5.087	5.698	180	3,54	-431	-7,6
	Informazioa eta komunikazioa	1.400	1.362	1.105	38	2,79	295	26,7
	Finantzak eta aseguruak	139	143	206	-4	-2,80	-67	-32,5
	Higiezinen sektorea	59	53	45	6	11,32	14	31,1
	Zientifikoak eta teknikoak	779	840	907	-61	-7,26	-128	-14,1
	Administraziokoak	3.141	3.707	3.478	-566	-15,27	-337	-9,7
	Administrazio publikoa	532	602	757	-70	-11,63	-225	-29,7
	Hezkuntza	2.458	3.190	3.048	-732	-22,95	-590	-19,4
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.301	5.238	5.206	63	1,20	95	1,8
	Arte- eta jolas-jarduerak	966	977	1.033	-11	-1,13	-67	-6,5
	Beste zerbitzu batzuk	636	579	762	57	9,84	-126	-16,5
	Etxeetako jarduerak	1.003	1.052	1.197	-49	-4,66	-194	-16,2
	Lurraldez kanpoko erakundeak	6	1	3	5	500,00	3	100,0
	Guztira	28.119	29.133	30.806	-1.014	-3,48	-2.687	-8,7
Guztira	Lehen sektorea	454	483	451	-29	-6,00	3	0,7
	Erauzketa-industriak	7	17	23	-10	-58,82	-16	-69,6
	Manufaktura-industriak	7.974	7.334	8.925	640	8,73	-951	-10,7
	Energia	20	25	20	-5	-20,00	0	0,0
	Ura	267	240	302	27	11,25	-35	-11,6
	Eraikuntza	1.571	1.763	2.282	-192	-10,89	-711	-31,2
	Merkataritza	5.936	5.931	6.910	5	0,08	-974	-14,1
	Garraioa	3.701	3.783	5.010	-82	-2,17	-1.309	-26,1
	Ostalaritza	8.347	7.816	9.054	531	6,79	-707	-7,8
	Informazioa eta komunikazioa	3.697	3.398	2.616	299	8,80	1.081	41,3
	Finantzak eta aseguruak	257	252	381	5	1,98	-124	-32,5
	Higiezinen sektorea	90	80	74	10	12,50	16	21,6
	Zientifikoak eta teknikoak	1.461	1.591	1.773	-130	-8,17	-312	-17,6
	Administraziokoak	5.923	6.787	6.084	-864	-12,73	-161	-2,6
	Administrazio publikoa	966	887	1.147	79	8,91	-181	-15,8
	Hezkuntza	3.328	4.369	4.194	-1.041	-23,83	-866	-20,6
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.819	6.614	6.543	205	3,10	276	4,2
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.499	2.482	2.436	17	0,68	63	2,6
	Beste zerbitzu batzuk	1.101	998	1.213	103	10,32	-112	-9,2
	Etxeetako jarduerak	1.080	1.135	1.302	-55	-4,85	-222	-17,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	6	1	4	5	500,00	2	50,0
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
Gizonak	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	109	80	98	29	36,25	11	11,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.015	4.512	3.247	-497	-11,02	768	23,7
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	3.091	3.061	3.839	30	0,98	-748	-19,5
	Administrazioko langileak	1.035	1.079	1.156	-44	-4,08	-121	-10,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.517	5.267	5.831	250	4,75	-314	-5,4

Kontratuen erregistroa 2024ko martxoan

		Mar-2024	Ots-2024	Mar-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	213	194	237	19	9,79	-24	-10,1
	Industriako kualifikatuak	2.841	2.650	3.334	191	7,21	-493	-14,8
	Operadoreak	3.453	3.327	3.918	126	3,79	-465	-11,9
	Kualifikatu gabeak	7.110	6.683	8.278	427	6,39	-1.168	-14,1
	Guztira	27.385	26.853	29.938	532	1,98	-2.553	-8,5
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	52	42	64	10	23,81	-12	-18,8
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.398	6.395	5.304	-997	-15,59	94	1,8
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.182	2.222	2.350	-40	-1,80	-168	-7,1
	Administrazioko langileak	1.974	1.900	2.334	74	3,89	-360	-15,4
	Zerbitzuetako kualifikatuak	11.295	11.303	11.997	-8	-0,07	-702	-5,9
	Oinarrizko kualifikatuak	22	16	23	6	37,50	-1	-4,3
	Industriako kualifikatuak	336	317	443	19	5,99	-107	-24,2
	Operadoreak	595	561	685	34	6,06	-90	-13,1
	Kualifikatu gabeak	6.265	6.377	7.606	-112	-1,76	-1.341	-17,6
	Guztira	28.119	29.133	30.806	-1.014	-3,48	-2.687	-8,7
Guztira	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	161	122	162	39	31,97	-1	-0,6
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	9.413	10.907	8.551	-1.494	-13,70	862	10,1
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.273	5.283	6.189	-10	-0,19	-916	-14,8
	Administrazioko langileak	3.009	2.979	3.490	30	1,01	-481	-13,8
	Zerbitzuetako kualifikatuak	16.812	16.570	17.828	242	1,46	-1.016	-5,7
	Oinarrizko kualifikatuak	235	210	260	25	11,90	-25	-9,6
	Industriako kualifikatuak	3.177	2.967	3.777	210	7,08	-600	-15,9
	Operadoreak	4.048	3.888	4.603	160	4,12	-555	-12,1
	Kualifikatu gabeak	13.375	13.060	15.884	315	2,41	-2.509	-15,8
	Guztira	55.504	55.986	60.744	-482	-0,86	-5.240	-8,6
ABLE	Gizonak	7.133	6.342	7.728	791	12,47	-595	-7,7
	Emakumeak	3.648	3.448	3.476	200	5,80	172	4,9
	Guztira	10.781	9.790	11.204	991	10,12	-423	-3,8
Pertsona-kopurua	Gizonak	20.103	19.732	21.722	371	1,88	-1.619	-7,5
	Emakumeak	20.217	20.359	21.323	-142	-0,70	-1.106	-5,2
	Guztira	40.320	40.091	43.045	229	0,57	-2.725	-6,3
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	16.840	16.518	17.776	322	1,95	-936	-5,3
	Batxilergoa	9.405	9.149	9.374	256	2,80	31	0,3
	LHko ikasketak	6.757	6.874	7.384	-117	-1,70	-627	-8,5
	Unibertsitate-ikasketak	7.117	7.351	8.217	-234	-3,18	-1.100	-13,4
	Atzerritarra	8.290	8.030	8.675	260	3,24	-385	-4,4
	Bertakoa	32.030	32.061	34.370	-31	-0,10	-2.340	-6,8
	<>	19	28	33	-9	-32,14	-14	-42,4
	Aberrigabea	51	36	48	15	41,67	3	6,3
	Europako Erkidegoa	518	543	574	-25	-4,60	-56	-9,8
	Erkidegokoa ez den Europa	604	604	657	0	0,00	-53	-8,1
	Txina	101	108	112	-7	-6,48	-11	-9,8
	Japonia	2	3	4	-1	-33,33	-2	-50,0
	Asiako beste herrialde bat	456	426	524	30	7,04	-68	-13,0
	Saharaz hegoaldeko Afrika	821	754	868	67	8,89	-47	-5,4
	Afrikako iparraldea	1.048	1.122	1.209	-74	-6,60	-161	-13,3
	Ipar Amerika	16	16	17	0	0,00	-1	-5,9
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.650	4.387	4.626	263	5,99	24	0,5
	Ozeania	4	3	3	1	33,33	1	33,3
	Atzerritarrak guztira	8.290	8.030	8.675	260	3,24	-385	-4,4